

## **Euskal Kultur Erakundea**

Euskal Kultur Erakundea 1990.eko primaderan sortu zen, Pizkundeak, Iparraldeko kultur elkarteak biltzen dituen Federazioak, eramandako guduka luze baten ondotik (hamar urte iraun duen guduka, 1980an hasirik): euskal kultura bere osotasunean ezagutua izan dadin; ezagutua eta ondorioz diruztatua.

Euskal Kultur Erakundeko Administrazio Kontseilua 20 kidek osatzen dute:

Botere publiko diruztatzailen izenean, 8 ordezkari:

Estatua: Jaun Prefeta, eta Kultur Ministraritzatik Bouet Jauna, Akitania Eskualdeko kontseilutik: Leclerc-d'Orleac eta Touraton Jaunak,

Pyrnes-Atlantiques departamentuko kontseilua: Coumet eta Destrade jaunak,

Euskal kulturaren sustengatzeko sortu den Euskal Herriko herrien arteko Zin-dikata: Badiola Jauna, Donibane-Lohitzuneko auzapena eta Lassalle Jauna, Do-napaleuko auzapeza.

Euskal Kultur Elkarteen izenean 8 ordezkari: Seguin anderea, Abeberry, Ba-choc, Cedarry, Claverie, Etchegoin, Goity eta Oyharabal Jaunak.

Euskal kultur munduko 4 pertsonalitate ezagutuak eta onartuak (4 hauek beste 16 kideek elkarrekin hautatuak): Camblong, Cazenave, Bidart eta Haritschelhar Jaunak.

Gaur egun, Ramuntxo Camblong Jauna da Euskal Kultur Erakundearen Lehen-dakaria.

Lau langile arduratzen dira eguneroko harat-hunatatuz:

Txomin Heguy, zuzendaria  
Daniel Landart, animazioaren zuzendaria,  
Nelly Chalet, idazkari-kontugilea  
Monique Mongabure (denbora erdiz) idazkaria.

### **Euskal Kultur Erakundearen helburuak argiak dira**

(Araudien 4. artikulua)

1) Elkarte honek izan behar du:

- Euskal hizkuntza eta kulturaren sustengatzeko egitura bat
- Goimailako ikerketa eta kultur harreman gune bat, eta hori sail guztietan
- Euskal kulturaren sorkuntzarako bultzatzaile bat.

2) Elkarteak arlo hauetan lan egin beharko du: Euskaingintza, Literatura eta edizioa, Antzerkia eta bertsolaritza, Entzun-ikus produkzioa, Dantza, Kantua, Musika, Arte plastikoak, Ondarea eta ingurumena, Euskal kirolak.

3) Maila desberdinetan lagundu beharko du kultur ekintza: sorkuntza, hedape-na, kultur animazioa, formakuntza.

4) Ahal tekniko batzuen bereganatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da eta eskakizuna eginen duten elkarte eta herriei zerbitzu hori eskainiko die.

Dena den, eta etorkizunari begira, Erakundearen xede nagusiak gai hauen inguruan biltzen dira:

- Euskal kultur lana sustatzea, laguntzea eta kalitatez hobetzea, tokian tokiko elkarte eta talde, kulturzaleekin;

- Egiten den lan horren hobeki kudeatzea eta lotura berri batzuen asmatzea eta finkatzea;

- Gure herri ttipietan, handietan bezala, euskal kultur hedapenerako gutziaren berriz sortzea eta akuilatzea;

- Gure kulturaren, gure ondarearen ezagutaraztea, irakastea, haurrei, gazteei; arroztua, ahantzia, ukatua dutenei, bai eta kanpokoei; eskolaren bidez, mintzaldien bidez, erakusketen bidez;

- Goimailako formakuntzaren bultzatzea, artisteei buruz, kultur sustatzailei buruz; hemen edo kanpoan gauzen ikertzeko, ikasteko, ikusteko parada eta laguntza batzuk eskainiz, biharko kultur arduradunak ukan ditzagun Euskal Herrian ere;

- Beste kulturekin harremanetan sartzeari, ikusgarri batzuen bidez, elgarretaratze batzuen bidez;

- Ikusgarri berezi, handi, eder eta biltzaile batzuen asmatzeko eta egiteko aukera sortzea, momentu indartsu eta nagusi batzuk bezala agertuko direnak;

- Gure artista, dantzari, kantari, musikari, antzerkilari, margolari eta besteei... Hego Euskal Herrian (batez ere Kultur Bideetan elkartearekin ditugun hartu-emanen esker) baita ere Euskal Herrikan kanpo agertzeko posibilitateen irekitzea;

Xede horiek helburutzat hartuz, Euskal Kultur Erakunde gazte, baikor, mugikor eta ireki baten egitera entseiatzen gara, gure erroak ongi ezagutuz eta baliatuz, geroari buruz itzulia den kultur tresna bat, euskal kulturaren zerbitzuko eta euskal kultura gaur sortzen eta hedatzen dutenekin.

*Txomin Heguy*  
*Euskal Kultur Erakundeko Zuzendaria*